IDAZLE ESKOLA

II KARMELE IGARTUA sorkuntza-beka

2011-2012 ikasturtea

Karmele Igartua Bengoa idazlea izan zen Beka hauetako irabazleetako bat, Bergarako Idazle Eskolako ikasle zelarik. IDAZLE ESKOLAri emandako bultzadaren eta berak idatzita utzitakoren oroigarri, bere izena eman diogu beka honi. Karmele Igartuak bezala, Idazle Eskolako ikasle guztiek bide oparoa jorratzeko ahaleginean.

IDAZLE ESKOLA

Helburuak :

- Beka hauen helburua ez da lehia bultzatzea, baizik eta ikasleak lan luze eta sakonagoetara bideratzea. Ahalegin hori laguntzeko eta ikasleek beste beka batzuetarako atariko izan daitezkeen lanak aurkez daitezke.
- Ez da beka honetara aurkeztu ahal izango aldez aurretik saritutako lanik.

Aurkeztu beharreko lanaren ezaugarriak :

- Ikasleek gutxienez 20 orriko (25.000 karaktereko) lan originala aurkeztu behar du, Lanak gehienez 50 orri izango ditu (67.000 karaktere)
- Poesia lana bada , gutxienez 400 lerro eta gehienez 600 izango ditu.
- Edozein gai eta edozein genero aukera daiteke., literaturazkoa, zein administrazio-dibulgaziozkoa.
- Lana ez da eskola-ariketez osatu ahal izango, eta ez eta tutoretzetara aurkeztutako lanez ere.
- Lanak gai edo bizkar-hezur nagusi bat izango du.

Epeak :

- **Beranduenera 2012ko apirilaren 28rako** entregatuko du ikasleak bere lana. Idatzizko kopia bat eta euskarri digitalean beste kopia bat (eta diskete batean ere bai .
  - Beraz posta-zertifikatuz datozen gutunetan data-zigilua jartzeko eskatu behar da.
  - E-postaz bidaltzeko asmoa duenak ezin du erabili ohiko duen helbidea. Lagunen batena beharko du. Gaia :BEKA.
- Kasu guztietan EZIZEN batez sinatua , eta alboan, itxitako gutun-azal batean izen-abizenak emanez. Inon ez da agertu behar egilearen aztarnarik, itxita gutun-azalean ez ezik.

- **EPAI-MAHAIAK** , aurkeztutako lanen artean banatuko du dagoen diru-kopurua, aurreko baldintzak bete eta kalitatea kontutan hartuz.
- Bekara aurkeztutakoen artean eta sail bakoitzean irabazten duenak 600 € jasoko du.
- Luzeenera bi hilabeteko epean emango da aditzera zeinek jaso duen beka
- Beka-irabazleak izan diren lanak argitaratu egingo dira.